

Berriketan



25 urte, ehunka kontu eta
hamaika berriketaldi



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, beheha
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tfnno.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 beheha. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



Hondartza kalea, 3-4 beheha - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARRROA - 94 683 29 75
ERMILUA - 94 317 44 35
Eta beste herri batzuetan.
www.torrealday.es

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3°esk, Zarautz



Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN

287

2023ko iraila

Azaleko irudiaren egilea:
Erredakzioa

AURKIBIDEA



9 ANIMADEBA
Aurtengo jaialdiko
palmaresa eta Aitor
Oñederra zuzendariaren
balorazioa



12 ELKARRIZKETA
Debako eta Itziarko
parrokietan izandako
esperientziak mintzo da
Patxi Aizpitarte apaiza



**16 '25 URTE
BERRIKETAN'**
Aldizkariaren mende
laureneko ibilbideari
buruzko gehigarria



**23 'KOLORE ANITZ
10 URTE'**
Herriko taldeak
10 urte bete ditu aisialdi
euskalduna sustatzen



27 ALBISTEAK
Deban ere Marokoko
lurrikarak kaltetutakoei
laguntzeko material
bilketa egin dute



28 AGENDA
Datozen asteotan
egingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatz **euskara**
Wz. deba **elkartea**

Berriketan

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatz Euskara Elkarte

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@zuhatz.com

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatz.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/200

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatz.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Tia Isabel. Arrankea.

Badira norbera jaio aurretiko etxe ondo sendoak, gero, halaxe behar zuelako, eraitsi eta lurrarekin nola berdintzen diren ikusi beharra egokituko zaizkizunak. Gizakiak ere izaten dira gogor askoak izandakoak; hain gogorrak ze etxearen zutarrari bihurtu edota etxearen beraren kondizioa hartzeraino antzaldaten diren. Horietako bat izan da abuztuaren 12an, halabeharrez, agurtu genuen tia Isabel, esate baterako. Berezko inenez, Maria Isabel Izagirre Salegi zena.

Erretiroa hartu arte, lanean ezagutu dugu tia Isabel bizi guztian. Gaztetan Eibarren; gero ezkondu eta familia aurrera atera beharrez etxean zein etxetik kanpora, denean. Bere gorpuzkera zabal, indartsua, hara eta hona eramanez. Tiaren dohainari *arrankea* esan izan diogu, eta miresgarria iruditzen zait norberak izan ez eta hurkoarengan sumatzen dudana aldi oro. Arrankea. Lanerako aurrena, esan dugu. Bere ordena ezarri edota errieta egiteko jenioa bestela. Karta jokoan. Itsaso haserreari aurrez aurre ipini eta inoiz olatuek astindu bortitzak eragin arren, hurrengoan ere, mendeku-trukean, buruz behera salto egiteko. Karakterra. Festa inguruan. Jan-edanean. Gure ume denboran, mezetan, egurrezko jainko gorrari berari *O maitetasun!* entzunarazteko arrankea, behar bezain altutik kantatuta!

Leiho pare-parean etxe tente eta eder bat baino gehiago ikus daiteke guretik. Ez dago begiak itxi beharrik zeu ere erreka ondotik hondartzaruntz irudikatzeke. Udazkenean igual. Apiril-maiatzean. Lapari gaineko bankuetatik, tia, zera jakin nahi izaten dut batzuetan, noiztikoak ote diren Debako itsasoak, etenik gabe, moldatzen dituen olatuak, indarra eta zeure moduko andrakumeak.

Enrike Izagirre

Guillermo Urkiza gogoan

Hura berri tristia/ latz eta isila/ ezkilaz ezkila/ Guillermo Urkiza/ genuela bila/ edo agian joan da/ Xabier Leten bila.

Geratu ginenean/ Guillermo zu gabe/ gaua egin zitzaigun/ bihotzaren jabe./ Kezkatu egin ginen/ galde eta galde/ irriak betiko egin/ ote zigun alde.

Itsasoari joan/ nintzaion galdezka./ Hitz gogoz kendu zidan/ bihotzeko kezka./ "Umorea estaliko/ duen euririk ez da/ nonbait jarriko zuen/ Guillermo horrek festa".

Pozez galde egin nion/ mendiari orduan:/ "Ikusi dezue Guillermo/ zure inguruan?"/ Horrela esan zidan/ erantzun moduan:/ "Festa hotsa sumatu/ nuen bart gauean".

Pozgarri izan zitzaidan/ hura jakitea/ eta bilatzeari/ gogoz ekitea./ Zeru erdian zaude/ Guillermo maitea/ izar txikia baina/ dirdiraz betea.



Marian Larrañaga





ITSASO ARAMENDI

Gazte gera gazte




Mende erdi inguru joan da Lourdes Iriondok *Gazte gera gazte ta ez gaude konforme* hura abesten zuenetik, eta, hainbeste ez badira ere, azkar joan zaizkigu nire belaunaldi-kideoi gaztaroko urteak. Hala ere, nire inguruan inor gutxik jartzen du zalantzan oraindik gazteak garenik. Are gehiago, nahiz eta 40 urtera hurbiltzen ari, badago, bere gaztetasuna zalantzan jarriz gero, minduta agertzen denik.

Alabaina, badago froga ukaezin bat gaztetasuna atzean utzi eta fase berri batean (helduaroa? heldutasuna? zein hitz zatarrak, frutez ari garela dirudi) sartu garela erakusten duena: gero eta ohikoagoa da "gaur egungo gazteek..." hitzekin hasten diren esaldiak entzutea gu baino gazteagoak direnek egiten dutena edo egiten ez dutena kritikatzeko eta guk egiten genuenarekin alderatzeko.

Ingelesez *Kids these days efektua* izenez ezagutzen da ondorengo generaziokoek egiten dutena zalantzan jartzeko joera hori. Sokrates zenak ere ondokoa bota omen zuen duela bi milurteko baino gehiago: "Orain gazteek luxua maite dute. Modu txarrak dituzte, autoritatea mespretxatzen dute; ez dituzte adinekoak errespetatzen, eta nahiago dute berriketan aritzea ariketa egitea baino".

Gaur egungo gazteak ez dira gu bezalakoak, ez, gu gure aurrekoak bezalakoak ez ginen bezala. Beren balio, uste, afizio, sinesmen eta pentsamenduak dituzte, gureak ez bezalakoak, eta beren artean ere askotarikoak. Utz diezaiegun beren mundua eraikitzen.

"Gaur egungo gazteak ez dira gu bezalakoak, ez, gu gure aurrekoak bezalakoak ez ginen bezala"

LIZ-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

LABATAI
taberna

Eskerrik asko!



1920ko hamarkada Gudarien Plaza

Argazkia joan den mendeko 20ko hamarkadakoa da. Eskuinean, Visi hotela. Itsasadarrera ematen duen etxe-aurraren hirugarren solairuaren gainean, Irarrazabaldarren harrizko armari handia sumatu daiteke, gaur egun udaletxeko arkupeetan dagoena. Bere ezkerrean, Banco Guipuzcoano zaharraren eraikin ederra. Erdian, Iriondo hotel eta jatetxea. Ezkerrean, Egaña hotela; bere hormen gainean, “Calle Alfonso XIII” kalearen izena daraman plaka, xingola gorri-hori batek gurutzatua. Lehen planoan ikusten den ibilgailuaren atzean gasolindegia dago. Bistan da jendeak lasai hitz egiten duela errepeidean.

Alex Turrillas Aranzeta



ekoðenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



JON ETXANIZ

Erasotasuna

Izotz aroak, lehorte luzeak, gerrateak, migrazioak, itsas zeharkaldiak eta ehiza jardunaldi amaigabeak izan dira gizakiok gaurdaino iristeko gainditu behar izan ditugun erronketako batzuk.

Hau guztia lortzeko, hain inguru eta egoera aldakorretara moldatzeko egundoko gaitasuna erakutsi dugu.

Babesa, janaria eta edaria lortzeko erresistentzia handia garatu dugu eta esan daiteke gure genetika egoera gogor horietan bizirauteko eraikia dela.

Azken mendeetan, ordea, teknologiak izan dituen aurrerapen guztiei esker, mehatxu hauek ia desagertu egin dira (lurralde "garatuetan", noski). Hasiera batean horrek onurak besterik ez dituela iruditu arren, bat-batean, zibilizazioaren gaixotasunak deiturikoak izurrite bihurtzen hasi dira. Badirudi amaigabea erotasun horretan, gorputzak zeri aurre egin behar dion jakiten ez duenean, kanpoan mehatxurik sentitzen ez duenean, horretarako sortua dagoen sistema immunologikoa norbere burua erasotzen hasten dela.

Natura oso aldakorra da, eta guk, natura horren parte izaki, aldaketa horiek bizi behar ditugu, eta horietara egokitu.

Esna dezagun denok barruan dugun animalia eta izan dezagun konfiantza erronkei aurre egiteko dugun gaitasunean. Horiek gainditzearen ordainsaria izan dadila erosasuna.

Erosotasuna ez dadila erasotasun bilakatu.

"Esna dezagun denok barruan dugun animalia eta izan dezagun konfiantza erronkei aurre egiteko dugun gaitasunean"

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



MAIEDER
hortz klinika

Eider Sampayo
Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia
Periodontzia · Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak · Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com



MARI SEARA

Marra gorriak

Akordatzen naiz eskolan idazlan bat egiteko eskatzen zigutenean, eta irakasleak hura zuzenduta itzultzen zigunean, kolore gorria gure hitzen artean ikusteak sortzen zidan ezinegonaz. Berriro ere ez dut ondo egin!

Ez da batere sentsazio ona mimoz egin dugun hori beste norbaiti eskaini eta hark kolore gorritz itzultzen digunean, ezta? Zer dago ondo? Eta zer gaizki? Zer da egokia? Eta zergatik? Nork esan du gauzak horrela izan behar direla? Nork du aginte makila?

Aurrekoan, Marea Gora hitzaldi zikloaren baitan, adimen artifizialari buruz aritu ziren. Teknologia aurrerapen izugarria egiten ari da azken urteotan, eta jada gureak ziren hainbat eginkizun makinek eta algoritmoek ebatzen dituzte denbora murritzean. Gaur egun, testuak unean bertan itzultzen eta zuzentzen dituzten aplikazioak daude eskura. Argazki baten bitartez, aurrean dugun hori zer den jakin dezakegu momentuan. Medikuntzaren alorrean, gaixotasunen ikerketarako baliabide desberdinak sortu dira eta sendatzeko aukerak handituz doaz. Teknologia benetan praktikoa eta onuragarria izan daiteke, baina beti?

Teknologia berriek zeharo aldatu dituzte gure egiteko erak eta konfiantza osoa dugu klik egin eta segundo batean guk egindakoa makinek modu zuzenean jarriko digitela. Baina nork esaten du zer dagoen ondo eta zer gaizki? Nork du aginte makila?

Komunikazioa errazteko, baten batek guretzat sortu ditu mugitzen diren emotikono, gif eta abatarrak, baina ez dezagun ahaztu boligrafo gorria eskuan hartuta bihotzak marrazten jarraitzea ez dela batere aukera txarra.

"Ez dezagun ahaztu boligrafo gorria eskuan hartuta bihotzak marrazten jarraitzea ez dela batere aukera txarra"

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Balazs Turai hungariarraren 'Amok' nagusitu da Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldian



Aurtengo sarituak, antolakuntzako kideekin batera. ANIMADEBA

Irailaren 6tik 9ra ospatu da aurturteko Animadebaren 16. edizioa eta, jaialdiaren zutabe diren bi sailetan (Sail Nagusian eta Zuzendari Berriak UPV-EHU Sailean) parte hartzen aritu diren 22 ekoizpenen artean, Balazs Turai-ren *Amok* film laburra nagusitu da. "Irudi original batekin biribildutako film laburra" dela azpimarratu eta, "istorioaren indarra" goraiatzarekin batera, "emakumea biktima roletik aparte" erakusten duela nabarmendu du epaimahaiak.

Irailaren 9an egindako sari banaketa ekitaldiko beste irabazlea *Pickles* film labur israeldarra izan zen. Ania Kaspi Shema-k eta Miri Dochikian-ek zuzendutako lanak gidoi onenaren saria eta Euskal Herriko zenbait zineklubek banatzen duten K-Saria bereganatu ditu. Epaimahaiaren esanetan, "oharkabea gera ezin den" eta "ondo idatzita" dagoen istorioa pantailaratu dute egileek. "Gaur egun puri-purian dauden gaiak modu xume eta arantzatsuan azaleratzen ditu eta solasaldi interesgarriak emango dizkigulakoan gaude".

Epaimahaikideen aipamen berezia, berriz, Rich Farria britainiarraren *From the top* film laburarentzat izan da, animazioan oinarritutako "ahots berri bat" dela azpimarratuta. Zuzendari Berriak UPV-EHU saria, aldiz, *The silence scream* lanak lortu du. Camille Anne, Julie Vandenbergue, Martin Laurent, Elisa Torris, Camille Leroy eta Lucas Foutrier frantziarrek zuzendutako lanak "norbere ahotsa ezin entzunarazteari buruzko beldur unibertsala modu berritzailean" adierazten duela aipatu zuen epaimahaiak.

Ikus-entzuleek boto bidez emandako Publikoaren Saria, azkenik, Martina Generali, Simone Pratola eta Francesca Sofia Rosso italiarrek zuzendutako *La notte* film laburra eskuratu du.

Gainontzeko errekonozimenduak Work In Progress deritzon sailean, bestalde, enbrioi fasean edo garapenean dauden animaziozko film laburren eta telesailen aurkezpenak jarraitzeko aukera egon da aurturtean ere; epaimahaiak hiru lan nabarmendu ditu.

Talentu Berriak saria Gala Sainz de Murietak zuzendutako *Bi color* proiektuarentzat izan da. Mugimenduan, kolorean eta soinuaren marrazki bizidunak eskaintzen dituen aukerak "sormenez" erabiltzeagatik saritu dute lana, baita maskotaren eta jabearen arteko harremana transmititzen duen "narratiba sentibera eta hunkigarria" lan-teagatik ere.

Work In Progress Saria, aldiz, Kaila Cepeda Satanen eta Felix Loche Uzurrungaren *Sacha* proiektuak eraman du. Epaimahaiaren iritziz, "oso ondo pentsatutako eta diseinatutako" saila da eta "modu unibertsal batean hausnarketarako gonbidapena" egiten du. Berria Saria, azkenik, Niko Vazquez eta Kote Camachoren *Bilbo berriro gris* lanak jaso du. Teknologia berrien onurak baliatuz, Bilboko historia eta gizartearen berrirakurketa iradokitzailea planteatzen duela eta euskararen aldarrikapena ere jasotzen duela dio epaimahaiak.

Euskal Makila saria, Baumanentzat Aurtengo jaialdiari itxiera emateko, "ibilbide oparoa" duen Signe Baumanek gonbidatu bereziaren *My love affair with marriage* bigarren film luzea proiektatu zuten.

Kutxa Zurian ikusgai izan zen lana Europako Film Onenaren sarirako hautagai izendatu zuten, eta nazioarteko sari ugari ere jaso ditu. Ekitaldian, gainera, Baumanek Euskal Makila saria ere lortu zuen; oroigarria Aitor Oñederra Animadeba jaialdiko zuzendariaren eskutik jaso zuen.

AITOR OÑEDERRA • Animadeba jaialdiaren zuzendaria

“Urte osoan beste hainbat lekutan egotea da gure asmoa”



XVI. Animadeba amaitu berritan, Aitor Oñederra Agirre (Deba, 1983) jaialdiaren sortzailearekin eta zuzendariarekin elkartu da *Berriketan*. Aurtengo jaialdiaren errepasoa egin, antolakuntzan izandako zailtasunen berri eman eta aurrera begirako asmoez aritu da zinemagile debarra.

Nola baloratzen duzue jaialdiak Debatik kanpo izan duen oihartzuna?


Helburuak, egia esan, betetzen ari dira. Debatik kanpo egiten diren Animadebaren ekitaldi guztiei, esaterako, Animadeba Off izena eman diegu. Donostiako San Telmo Museoan egin ditugu ekitaldi horiek eta museoak berak duen proiektzioak oihartzun handiagoa eman digula uste dut; ez hori bakarrik, festibalari prestigioa ematen dio museoak berak duen ibilbideak ere. Alde

horretatik, oso eskertuta gaude Donostia Kultura eta museoaren lantalde osoarekin. Aurrera begira, gainera, urte osoan beste hainbat lekutan egotea da gure asmoa. Horren adibide da, adibidez, EHUren Bilboko Bizkaia Aretoan urrian egingo dugun jardunaldia.

Dozenaka ekintza antolatu dituzue aurten ere. Nolako izan da publikoaren erantzuna?

Jende andana ibili da antolatutako ekitaldietan eta, esku artean kopuru zehatzik ez dudan arren, Internet

“Halako dimentsioko festibal bat antolatzeko langile gehiago behar dira, baina dugun aurrekontuak ez du gehiagorako ematen”



Irailaren 9an banatu zituzten aurtengo sariak. ANIMADEBA



Mikel Morenoren emanaldia, kioskoko pareko terrazan. ANIMADEBA

bidezko salmentan beherakada egon dela nabaritu da. Hala ere, inoiz baino bonu edo eskumuturreko gehiago saldu dira programazio osoaz gozatu nahi izan dutenentzako, eta Kutxa Zuriko zuzeneko salmentak ere ondo funtzionatu duela esan genezake.

Hainbat eguneko egitaraua antolatzeak lan mardula eskatzen du. Zer moduz moldatu zarete?

Lan handia dago atzean. Aurten, gainera, langile bat gutxiago izan dugu, eta sei atalez osatutako festival bat antolatzeko orduan asko nabaritu da. Egia esan, halako dimentsioko festival bat antolatzeko langile gehiago behar dira, baina dugun aurrekontuak ez du gehiagorako ematen.

Aurten, berrikuntza bezala, Animadeba LAB izeneko tarte ere izan duzue. Zer nolako harrera izan du?

Work in Progress atalean, animazio proiektuen aurkezpenen gorakada izan dugu, eta hori benetan ospatzekoa da. Aurten pisu handiagoa eman nahi izan diegu bideojokoei eta teknologia berriei. Berritasun garrantzitsu bezala, bideojokoen atala estreinatu dugu Kasu-azterketa sailaren barruan, eta formatu horrekin ate berri bat ireki da Animadebarentzat. Gainera, festibalean beti izan diren tailer eta konferentziak hemendik aurrera Animadeba Lab atalean biltzea pentsatu dugu, atal hori nolabait osoagoa izan dadin. Teknologia berrien erabilera animazioan nola aplikatu ikertzeko gune moduko bat izango du atalak. Aurten, esate baterako, adimen artifiziala hartu dugu ardatz, eta oso ondo funtzionatu du.

“Aurrerantzean, Nazioarteko Animazio Zinemaldi izatetik Nazioarteko Animazio Festibala izatera pasako da Animadeba”

Beldurrezko generoari keinu egiten dioten filmen proiektzioa ere aipatu liteke bestelako berrikuntzen artean. Nolako esperientzia izan da?

Oso gustuko dut genero hori, asko gozaten dut. Alde horretatik, aurtengo festibala oso bitxia izan da; nazioarteko film laburren lehiaketan, Sail Nagusian eta Zuzendari Berriak sailean beldurrezko edo suspense generoko film dezente izan dira, aurtengo *Amok* film irabazlea barne. Beldurrezko saio berezi bat egiteko ideia hortik atera zen, eta ikusle asko erakarri zituen.

Etorbizunera begira zer asmo duzue? Aurrerantzean aldaketarik izango al da?

Aldaketak beti egongo dira Animadeban. Are gehiago, beharrezkoa ikusten dut festibalak urtez urte etengabeko bilakaera izatea, betiere animazio independentea ardatz hartuta eta industriari lekua utzita. Eta jaialdian bideojokoak eta animazio teknologia berriak txertatuz, gainera, aurrerantzean, Nazioarteko Animazio Zinemaldi izatetik Nazioarteko Animazio Festibala izatera pasako da Animadeba.



Peru Galbeteren kontzertua, elizako klaustroan. ANIMADEBA



Luzaroko ikasleak, haurrei zuzendutako emanaldian. ANIMADEBA

“Deba, Itziar, Lastur eta Elorriagako eliz eta herri giroan bizitako esperientzia oso aberasgarria izan da niretzat”

PATXI AIZPITARTE MENDIA • Debako eta Itziarko parroko ohia



Hamabi urteren ostean, Debako eta Itziarko parroko izateari laga berri dio Patxi Aizpitarte Mendiak (Beizama, 1955). Orain, ordea, aro berri bat hastea dagokio Donostiako Ignazio Loiolakoaren parrokian. Fernando Prado Donostiako gotzain berriak duela hilabete batzuk egindako eskaintza onartu ondoren, gainera, Gipuzkoako Caritaseko gotzain ordezkari karguarekin uztartuko du jarduna aurrerantzean.

Beizamarrak irailaren hasieran eman zituen azken mezak inguruotan eta dagoeneko jardunean hasita dago lekukoa hartu dion Xabier Andonegi apaiza ere. Deba eta Itziar atzean utzi aurretik, baina, herrian eta herritarrengan arrastoa utzi duen Aizpitarterekin elkartu da *Berriketan*. Giroz aldatzeko unea iritsi bazaio ere, "oso maitatua" sentitu dela nabarmendu du.

Mikel Egañaren eta Juan Jose Manzidorren lekukoa hartuta, 2011ko urrian hartu zenuen Debako eta Itziarko parrokien ardura. Zer nolako esperientzia izan duzu paraje hauetan?

Hamabi urte pasa dira etorri nintzenetik; Erroman urte eta erdi egin ondoren nentorren. Egia esan, ia ez nuen Gipuzkoako txoko hau ezagutzen; beraz, parrokietako eta herriko jendea poliki-poliki eta pazientziaz ezagutzen hasi beharra izan nuen. Hasieratik onartua sentitu nintzen eta zinez eskertzen diet lehen etapa horretan nigana hurbildu eta herrian kokatzen lagundu nindutenei. Horien artean garrantzitsua izan zen Alex Turrillasen hurbiltasuna eta adiskidetasuna.

Deba, Itziar, Lastur eta Elorriagako eliz eta herri giroan bizitako esperientzia oso aberasgarria izan da niretzat, bai giza alderditik begiratuta, bai fede ikuspegitik. Etorri nintzenean, ez nuen imajinatu ere egiten hain zorioneko izango nintzenik paraje hauetan.

Zer irakatsi dizu hemengo egonaldiak?

Deba eta Itziarko herri giroa oso bizia dela esango nuke. Garbi agertzen da hori ikasketa eta lan esperientzia mailan, kirol arloan, musika esparruan, hainbat kultur ekimenetan, festa eta ospakizunetan. Bizitza eskertzen, maitatzen, ugaritzen ikas daiteke hemen. Urteotan, gainera, on handia egin dit Caritasean bidez hainbat etorkinekin harremana izateak. Jende sufrituaren ondoan beti ikasten da. Frantzisko aita santuak behin baino gehiagotan goraiatu du Amets Arzalluzek *Miñan* etorkin afrikarrari eskainitako liburuxka. Egia esan, Miñan gaztearen antzeko historiak errepikatzen dira ezagutu ditudan etorkin afrikar gehienetan.

Eta, alderantziz, zu zeu zer saiatu zara irakasten bertako herritarrei?

Garai bateko apaizak maisu eta irakasle izateko misioarekin sentitu zitezkeen, baina, nire kasuan,



Patxi Aizpitarte, Santa Maria eliza atzean duela, Plaza Zaharreko iturriaren ondoan. ERREDAKZIOA

nahiago izan dut herrian eta parrokian integratu eta jendearekin bizitza eta fedea partekatzea. Azken finean, denok bizi gara herri berean eta zerbitzu jarreraz bizitza dagokio apaizari, beren fede edo sentimendu erlijioso, jatorri, kultura edo ideologiagatik bereizketarik egin gabe eta pertsonak baztertu gabe.

Deba eta Itziarko bidea amaituta, osasuntsu lagatzen al dituzu bertoko parrokiak?

Duela gutxi gauzatu du Frantzisko aita santuak Mongoliara azken bidaia apostolikoa. Pentsa, nazio horretan 1.500 katoliko bataiatu besterik ez dira, baina, halere, 8.000 kilometro pasa egin eta haiekin elkartu nahi izan du, bere presentziaren bidez hango kristau elkarte xumea hauspotzeko eta animatzeko. Egia esan, multzo handiek eta zenbakiek ez dute azken hitzik ebanjelikoki eta, alde horretatik, oso gustura elkartu naiz Elorriagako eta Lasturko kristau elkarte txikiekin. Itziarko parrokia, aldiz, handiagoa da eta zerbitzu baliotsua eskaintzen du. Korua ardatz dela, parrokia Auzo Udalera irekita mantentzen da. Santutegi moduan, gainera, inguruko herrietatik hurbildutakoei harrera egiten die, eta fedea ospatzen lagundu. Jende

“Nire kasuan, nahiago izan dut herrian eta parrokian integratu eta jendearekin bizitza eta fedea partekatzea”

eta talde antolaketari dagokionean, berriz, Debakoa da parrokiarik aberatsena: besteak beste, eliz garbitzaileen taldea, sozio-karitatezko, katekesiko, kooperazioko, liturgiako eta ekonomiako taldeak, abesbatza eta bi parrokiatako batzordeak ditu.

Pozik al zaude emaitzarekin?

Hobe da botila erdi beteta ikustea erdi hutsik baino, eta guztion artean eraikitzen joan garena baloratzea. Dena dela, garbi dago zaila egiten zaigula fede proposamena helaraztea eta eliztar sena gaztetxoei eta gazteei transmititzea. Haurtzaroko katekesia lehen jaunartzeraino iristen da, baina gerokoan



“Garbi dago zaila egiten zaigula fede proposamena helaraztea eta eliztar sena gaztetxoei eta gazteei transmititzea”

“Ziur izan, Donostian bizi arren, ez dudala ahaztuko Deban, Itziarren, Lasturren eta Elorriagan bizitakoa”

oztopoak sortzen dira kristau sarbideari jarraipena emateko edota gazteen pastoraltza bat gauzatzeko. Horregatik, erronka bat da belaunaldi berrien bidez erreleboa lortzea.

Nolako harremana izan duzu inguruotako eliztarrekin eta, oro har, herritarrekin?

Oso harreman naturala eta hurbilekoa daukat. Bai baserrietara joan naizenean, bai kalean jendearekin topo egitean edo bileretan elkartzean, harreman atsegin eta konfiantzazkoak bizi izan ditut. Egia esan, Deban zein Itziarren etxeko sentitu naiz.

Momentu bereziak ere biziko zenituen...

Azken hilabeteotan hunkigarriak izan dira Txaro Garateren eta Joxean Larrañaga apaizaren hileta elizkizunak. Ama Birjina Egunaren bezperako meza jendetsua eta San Roke Eguneako prozesio ibilaldia ermitara ere oso une pozgarri eta bereziak izan ohi dira. Eta ezin ditut aipatu gabe utzi Deban zein Itziarren ospatutako despedidako mezak eta eskainitako agurrak.

Herritar askoren makulu izan zara urteotan. Une gogorak ere biziko zenituen tartean, ezta?

Nahiz eta apaiz lanetan 27 urte eramán eta hainbat hildako agurtu, esperientzia berri bat suertatzen zait heriotza bakoitza. Batez ere zendu dena, gaztea izanik edo sasoiko egonda, ustekabeen hil bada. Tanatoriora

joatea, familiarekin egotea, hileta ospatzea eta ahal den neurrian lagun egitea... zerbait delikatua da beti. Duela urte batzuk, Donostiatik Itziarrera egin ohi dugun gau ibilaldian parte hartu eta parrokiaren lehen jaunartzeak ospatzera nindoala senideek aita hil zela jakinarazi zidaten. Aitarengalera barnean eta isilpean sentituz ospatu nituen Debako jaunartzeak eta Itziarko meza, ondoren familiarengana abiatuz; une ahaztezinak bihurtzen dira horrelakoak.

Donostiara joan aurretik agur berezi bat baino gehiago egin dizute eliztarrek zein herritarrek. Une bereziak edo hunkigarriak izan zirela aipatu duzu...

Bretainia aldean egon nintzen oporraldi motz batean, eta bueltan ez nuen imajinatu ere egiten halako tamainako agurra eta omenaldia eskainiko zidatenik. Itzela izan zen Debako parrokiaren eta Plaza Zaharrean bizitakoa. Elizkizunean hainbat jende ikustea, bukaeran hurbildu zen ume taldea agurtzea, egindako opariak jasotzea, Alazne Txurruka alkatearen eta Xabier Zalduegiren hitzak entzutea, Ixabel Jauregi azkoitiarrak egindako bertso esanguratsuak eliztarrekin batera abestea, Kalez Kale txistulari taldekoen doinuak entzutea eta Gure Kaiko dantzarien saioaren testigu izatea, bandaren eta Aitzuri koruaren emanaldi ederraz gozatu ahal izatea... eta, azkenik, Manolo Pascual zuzendari zela



Ozio Bideko danborrada jotzen ikustea... hunkigarria egin zitzaidan benetan! Berehala ohartu nintzen han ez zeudela eliztarrak bakarrik, eta ekitaldian herriko jende oso ezberdina bildu zela ikusteak asko poztu ninduen. Egia esan, lotsatuta ere sentitu nintzen, nire barnean esanez: "Baina, zer egin dut bada nik hau guztia merezi ahal izateko?". Biharamunean, berriz, Familien Meza ospatu genuen Itziarren, bertso, opari, zorion agur eta ondorengo hamaiketakoarekin. Itziarkoa ere elizkizun eta omenaldi jendetsua eta giro onean ospatutakoa izan zen. Eta nik berriro esaten nion neure buruari: "Hau dena zergatik?". Hori guztia gehiegizkoa iruditzen zitzaidan.

Orain, ordea, beste etapa berri bat hastea dagokizu. Fernando Prado Donostiako gotzain berriak Gipuzkoako Caritaseko gotzain ordezkari berri bezala jarduteko aukera eskaini zidan duela hilabete batzuk. Horrekin batera, Donostiako parroikia baten ardura hartu beharko nuela ere gaineratu zidan eta, Groseko Ignazio Loiolakoaren parrokiako erretorea bikario nagusi izendatua izan denez, parroikia horren ardura ere eman zidan segidan. Beraz, alde batetik, Gipuzkoako Caritaseko gotzain ordezkaria izango naiz, sozio-karitate eta misioetako arloan, eta, bestetik, Groseko Ignazio Loiolako parrokiako erretorea.

Hemen Xabier Andonegik ordezkatuko zaitu karguan. Parrokiak esku onetan uzten dituzula esango al zenuke?

Dudarik gabe. Aspalditik ezagutzen dut Xabier. Nire adin antzekoa du -urtebete zaharragoa da-, mutrikuarra jatorriz eta harremanetarako atsegina. Bestalde, apaiz jantzia ere bada; hainbat urtez Pio XII.a Erljio Zientzietarako ikastegiaren zuzendaria izan da. Horrez gain, eskarmentu handiko apaiza da, izan ere, parroikia askotan gauzatu du bere apaiz zerbitzua. Azken urteotan, Donostiako Alde Zaharrean dagoen San Bizente parrokiako erretore izan da eta, aldi berean, Caritaseko gotzain ordezkari eta sozio-karitatezko alorraren eta misioetako bikario arduraduna ere. Mutrikuarra izanik, senideengandik eta familiarengandik hurbil izango da. **Zeurea da hitza, Patxi. Agurtzeko orduan zer mezu helarazi nahiko zenieke herritarrei?**

Ziur izan, Donostian bizi arren, ez dudala ahaztuko Deban, Itziarren, Lasturren eta Elorriagan bizitakoa. Nirekin daramazkit hainbat oroitzapen, aurpegi eta harreman baliotsu. Asko zor diot herri honi, beraz, eskerrik asko guztiagatik. Barkatu uneren batean norbait mindu baldin badut, eta plazer bat izan da zuen artean bizitzea eta apaiz izatea. Etorriko naiz noizbehinka eta, Gros aldera joaten bazarete, jo beldurrik gabe parrokiako txirrina.

Bidelagunez inguratuta ospatu du 'Berriketan'-ek 25. urteurrena

Zuhatza Euskara Elkarateak iaz osatu zuen 25 urteko ibilbidea eta Debako *Berriketan* aldizkariak aurten egin berri du mende laurdena. Pasa den irailaren 15ean ospatu zen urtemuga borobila, festa giroan eta lagun artean; bertsoak, musika, erakusketa, luntxa... izan ziren aukeran estalitako pasealekuan. Herritar ugari bildu zituen hitzorduak.

"Ospatzeko asko, baina asko, daukagu!", nabarmendu zuten Zuhatza elkarteko eta aldizkariako kideek. Izan ere, dagoeneko 25 urte pasa dira euskara hutsean idatzitako *Berriketan* hilabetekaria lehenbizikoz plazaratu zutenetik, 1998ko abuztuan. Eta, harrezkero, "gorabeherak gorabehera", baina "hutsik egin gabe", jarraitu du bere bidea egiten aldizkariak, gaur artean.

Herritarrekin batera ospatu nahi zuten urtemuga eta hala izan zen, bai, hamarnaka lagun batu baitziren *25 urte Berriketan* lelopean antolatu zen ospakizunera. Aldizkariaren mende laurdeneko bilakaera ikusteko aukera ematen zuen erakusketak, Antton Aizpuruak kantatutako koplek, Joseba Escudero Zuhatza elkarteko kidearen hitzek, Miren Artetxe eta Alex Turrillas musikariaren kanteak eta Harria talde bergararraren emanaldiak osatu zuten egitaraua. Tartean, edariak zein askotariko mokaduak ere izan ziren aukeran.

Eskerrik beroenak "beharrezko" bidelaguneri

Joseba Escudero aldizkariaren 25 urteotako ibilbidea laburbildu zuen ekitaldian eta ziurtasunez azpimarratu zuen "Debako XXI. mendeko euskararen historia idazten denean, etorkizunean, leku garrantzitsua" beteko duela *Berriketan*-ek, "seguru!".



Nolanahi ere, gogorarazi zuen hedabideak hainbat eta hainbat bidelagunen ekarpenari esker lortu duela gaur egun arte iristea eta, hortaz, euskara elkartearen izenean, esker oneko hitzak izan zituen "ezinbesteko" izan diren eta aurrerantzean ere "beharrezko" izango diren bidelagun guztientzat.

"Modu batean zein bestean parte hartu duzuenok, argazkiak ateratzen, idatziak prestatzen, kolaboratzaileak proposatzen, elkarrizketak egiten, publizitatea lotzen, zuen iragarkiak jartzen, maketatzen, pegatak ipintzen, aleak banatzen... ibili zareten guztiok eta, ahaztu gabe, ezinbesteko irakurleok. Den-denok izan zarete beharrezko *Berriketan*-en 25 urteotako historian. Eta zuokin guztiokin jarraitu nahi dugu bidea egiten, beste mende laurden batez gutxienez".

**“Den-denok izan zarete beharrezko
'Berriketan'-en 25 urteotako
historian. Eta zuokin guztiokin
jarraitu nahi dugu bidea egiten”**

287 ale, ehunka bidaiari eta beste hainbeste kontakizun mende laurdeneko bidean

Ez da ariketa erraza azken 25 urteen errebaso historikoa egitea, baina urtemugak atzera begira jartzeko aitzakia izan ohi dira sarritan. Euskara sustatzeko bitarteko gisa jaio zen *Berriketan*, herriko kontuen eta bizitzaren lekuko izateko asmotan, eta aldagetak izan dira herri komunikabidean, baina ez haren oinarri eta helburuetan. Hastapenetan eta bidean lagun izandako zenbait kideren hitzak jaso ditugu ondoko lerroetan. Guztiei ahotsa ematea ezinezkoa izanda, gutxi batzuen adierazpenekin osatu dugu gehigarria.

Debako Kultur Elkartearen bueltan hasi zen orain 25 urte pasatxo *Berriketan*-en bidaia, "euskara sustatzeko bitarteko gisa". "Amaia Zinkunegi kazetaritza edo euskal filologia ikasi genuenokin edo euskaraz idazteko zaletasuna genuenokin jarri zen harremanetan eta, bailaran beste herri batzuetan egin zuten moduan, aldizkaria sortzeko proposamena ekarri zigun. Laster ikusi genuen lehendabizi euskara elkarte euskara eta euskal kulturaren inguruko komunitate bat sortzeko", laburbildu du Nagore Dorronsorok, atzera begira jarri eta aldizkariaren hastapenei buruz hitz egitean.

Bada, testuinguru horretan jaio zen lehenik Zuhatza Euskara Elkarte, 1997an, eta gerora *Berriketan* bera, urtebetera.

Hasiera-hasieratik batu zen Lukax Dorronsoro ere proiektura:

"Aldizkariaren lehenengo alearen aurretik jarri zen nirekin harremanetan martxan zebilen taldetxo, zuzentzaile bat behar zutela eta; automatikoki egin ninduten taldeko partaide, *kar-kar-kar*. Ordurako euskara bultzatzeko hainbat ekintzatan nenbilen, antzerkian, irakaskuntzako euskarazko materiala prestatzeko Steilas taldean, eta abar".

Dorronsoro aita-alabekin batera, beste hainbat herritar ere hasi ziren lanean aldizkaria aurrera ateratzeko asmotan. "Hasieran lagun dezente bildu ginen, baina bizitzako norbere gorabeherak direla eta, talde oso txiki baina egonkor batek jarraitu genuen gero. Lehenengo bileretan zortzi bat izango ginen, sei bat gero, eta boluntario-aldiko azken urteetan lau lagun geratu ginen. Talde giroa oso ona eta gertukoa zen, kuadrillatxo berezi bat egin genuen".

ZER DEN NORK DAKI?
Tipitaki-tapatiki, nik bai, badakit

G. Zer den nork daki? Euskara: hizi nahi denezki hage hater inguruen hitzen aldetan, eta hizi eremuetan onduan; hizi lagunak: hizi kulluzak; hazi nahi denez?

E. Nik bai badakit: ZUHATZA
Euskara Elkarte.

G. Eta, zer den nork daki? Bile horiek arrotan, berriketan hazi eta berriko berriena egongo da? Berriketan jarri eta berriaren elkarrekin egongo da? Berriketan ematen eta bidari, herriko elkarte, herriaren gainetik, herriko eragile zahar... nola laguntzen ditu?

E. Nik bai badakit: berriketan herri aldizkari.

1. berriketan, herriko herriak, notiziak euskaraz emaitxo jaso da.
2. berriketan hitzo argitaratiko da eta hitzo lehen euskaraz banatuko. Lehenik hitzo hitz berriak sartuko dira seguru alako, eta geroztik zaharretan sartuko. ZUHATZA hitz berriak gertatu ezin diren hitzak sartu aldi berean, baina hitz berriak sartu aldi berean. Berriketan hitz berriak sartu aldi berean. Berriketan hitz berriak sartu aldi berean.
3. berriketan denda da.

Notiziak hitzen, proposamen... elkarrekin egiten, eragile zaharretan topa...

AITOR TABERNA
• Pintxoak • Tabakoak • Tragoak
• Martxo inguruko San Rokean
Itelak: 14. 20220184 - Itelak: 14. 2022

BIRKATZAN
Pintxoak, tabakoak, tragoak
Martxo inguruko San Rokean
Itelak: 14. 20220184 - Itelak: 14. 2022

Berriketan aldizkariaren lehen zenbakia.



Tartean zen, adibidez, Xabier Laka. Ez ditu oso argi oroitzen hasierako lehen urrats haiek, baina jakin badaki "euskara eta herrigintza uztartzen zituen deialdia izanik, aurrez harreman zuzenik izan gabeko lagun batzuekin topo egiteak ikasketa pertsonalerako ere" balio izan ziola. "Elkar ezagutzen joan ginen hilabetero egiten genituen bileretan, eta lanak banatzerakoan idaztea tokatu zitzaidan. Epeak errespetatu beharra, jasotzeko dataren hurbiltasuna (Lukaxek zuzenketa egiteko denbora izan zezan), argazkiak atera beharra... oraindik garai analogikoak ziren haiek!... Eskolara joatea bezala izan zen niretzat", gaineratu du.

"Denok bildu, intereseko gaiak erabaki, eta gero ardurak banatu". Hori izaten zen (eta oraindik ere bada) erredakzio taldeak lanari ekiteko lehen pausoa eta luzea zen zereginen zerrenda: elkarrizketak eta kale inkestak egin, argazkiak atera eta errebelatzea eraman, testuak zuzendu, maketatu, edizioa Kaioara eramateko prestatu... Gogoia, elkarlana eta borondatezko lana ziren, besteak beste, proiektuaren funtsezko zutabe.

Lehen zenbakia

"Zer den nork daki? Tipitaki-tapataki, nik bai, badakit". Titular hori zeraman 1998ko abuztuan kaleratu zen *Berriketan*-en lehen alearen azalak. Zortzi orrialdeko agerkari haren kontrazalean, berriz, herritar ugariaren izen-abizenak jasotzen zituen lantaldearen aipamenak: Aiora Aizpurua, Mikel Aizpurua, Eli Alba, Nerea



Antolakuntza eredu berria jendaurrean aurkeztu zen 2009an.



Hamarnaka lagunek parte hartu zuten 2016ko gogoeta prozesuan.

Aranberri, Nere Arostegi, Joseba Escudero, Nagore eta Lukax Dorronsoro, Edurne Iriondo, Mari Seara, Amaia Zinkunegi, Itziar Arregi, Amaia Etxabe, Igor Prieto, Oargi Argazki Taldea, Edurne Iriondo, Iñaki Elosua...

Aro ezberdinak

Hogeita bost urte joan dira ordutik, eta 200dik gora ale argitaratu ditu aldizkariak mende laurden honetan (esku artean duzuen 287. zenbakia da). Aro ezberdinak izan ditu ibilbidean. "Bi etapa bereiziko genituzke hasierako aldiak: maketatzaila genuenekoa, Edurne Iriondok betetzen zuen lan hori; eta ostekoak, gure etxean biltzen ziren lan guztiak Kaioara maketatzera bidaltzeko gero —aipatu dute Dorronsorotarren—. Egia esan, kolpe gogorra izan zen Edurnek taldea laga behar izana. Gero etorri zen profesionalizatzea, ezinbesteko ikusi genuena, aurrera jarraitzekotan".

2009an etorri zen, hain justu, langile boluntarioak eta profesionalak batuko zituen "eredu misto" bat ezartzearen aldeko apustu hori. Bi urtez hausnarketa egin ondoren, eta Euskaltzaleen Topagunearen aholkuz, eraldaketaren eta berrikuntzaren aldeko hautua egin zuen Zuhatzak urte hartan eta proiektuak koordinatzeko bi pertsona hasi ziren lanean soldatapean.

Erabaki haren ondoren, askotariko aldaketak izan ziren *Berriketan*-en hurrengo urteetan: diseinu eta eredu berria maketazioan, kolorea, ale eta orrialde kopurua handitzea, banaketa sistema berraztertzea...



Aldizkariaren 25 urteotako bilakaera ikusteko aukera izan zen urteurren festan antolatutako erakusketan.

2016an, berriz, gogoeta prozesua egin zuen Zuhatzak, euskararen egoeraz eta etorkizunaz hausnarketa kolektiboa egiteko helburuz. Eta, ondorioz, aldaketa estrategikoak izan ziren berriz ere hedabidean: lantalde berriak sortu, proiektuan jende berria inplikatu...

Egokitu, aurrera egiteko

"Nahitaez, garai berrietara eta unean uneko errealitatera egokitzen asmatu behar izan du aldizkariak. Lorpen txikiak eta handiak izan ditugu, baina zailtasunak ere ugari", laburbildu du 2009az geroztik aldizkariako koordinazio lanetan diharduen Izaro Aulestiartek.

"Bai, honaino iristeko, garaietara egokitzen asmatu duela esango nuke —gaineratu du Nagorek—, baita gure artean eta herritarrekin lagunarteko komunitatea sortzen ere. Borondatez eta onena ematen saiatuz, baina mila muga eta ezintasun izan ditugu bidelagun; hasieran emaitza apala lortuz, orain ederra, gure ustez".

Lakaren iritiz, "25 urteotan denok bilakatu gara *Berriketan*-en jarraitzaile eta lagun, ohiko bihurtu zaigu etxeko buzoian jasotzea, baina ahaztu egin zaigu, niri ere bai, zein nekeza izaten den batzuetan aldizkari bat aurrera ateratzea, eguneratzea eta gaur egungo informazio-uholde honetan toki propio bat mantentzea".

Zailtasunak zailtasun, baina pausoz pauso, 25 urte bete berri ditu *Berriketan*-ek eta prest dago bidea egiten jarraitzeko. Iaz atari digitala estreinatu zuen (*Berriketan.eus*), eta aurten diseinu eta formatu berriz jantzi da paperezko hilabetekaria. Era berean, eskualdeko tokiko hedabideekin ere elkarlanean dihardu DKT taldean.

"Erredakzioan hiru lagun gabiltza orain, baina ezin dugu ahaztu hedabidea itzalean aritzen diren beste hainbat herritarren lanari eta babesari esker plazaratzen dela", dio Aulestiartek. "Urtemugan pozik egoteko arrazoiak ditugu, bai, pozik eta oso eskertuta ere bai, noski".

"Aurrez harreman zuzenik izan gabeko lagun batzuekin topo egiteak ikasketa pertsonalerako ere balio izan zidan"

"Ezin dugu ahaztu hedabidea itzalean aritzen diren beste hainbat herritarren lanari eta babesari esker plazaratzen dela"

Herriak hitza bere du
herriak hitza bere du
hitzei lotuta gaude gu
zertan bihurtuko gera
hitza galduko badegu
zertan bihurtuko gera
hitza galduko badegu

Hitzak behar du entzuna
hitzak behar du entzuna
inor adituko duna
bestela alperrik boza
bestela alperrik luma
hitzak behar du entzuna
inor adituko duna

Zuk dituzu gure hitzak
zuk dituzu gure hitzak
gure zalantzak, jakintzak
zure orrietan bide
egiten du herrigintzak
gure zalantzak, jakintzak
zuk dituzu gure hitzak

Segi zazu Berriketan
segi zazu Berriketan
beste hainbeste urtetan
zetzua duten artean
hitzak jarritz paperetan
zetzua duten artean
hitzak jarritz paperetan

Segi zazu Berriketan
segi zazu Berriketan
beste hainbeste urtetan
zetzua duten artean
hitzak jarritz paperetan
beste hainbeste urtetan
segi zazu Berriketan.



Antton Aizpurua
'25 urte Berriketan'
urteurren festan
abestutako koplak

Doinua: "Librezara libre aitte"

Zer da **Berriketan** zuretzat?

NERE AROSTEGI

Erredakzio taldeko kide ohia



**"Hainbeste urtetan,
hilero-hilero ale
berri bat atera da
eta hori herria bizirik
dagoen seinale da"**

Gogoan daukat Amaia Zinkunegik proiektu berri hartan parte hartzeko gonbidapena egin eta lehen aldiz Kultur Elkartearen elkartu gineneke eguna. Urte haietan egindako taldeko lanaren oroitzapen polita daukat; gai ezberdinen inguruan elkarrizketak egin (Iñaki Iriondori, Martin Sukiari, *musher* lasterketetan aritzen zen emakume bati), Amaiak Bat-en neskak parte hartzen hasi zirenekoa, kaleko inkestak... grabagailua hartuta (kasetea, pilak...), gero testua disketera pasata... nola aldatu diren teknologiak harrezkerok!

Hainbeste urtetan, hilero-hilero ale berri bat atera da eta hori herria bizirik dagoen seinale da, talde lanean, elkarrizkeretara emanek, herritar askok lan egin izanaren erakusle! Zorionak denoi eta jarrai dezala erreleboak beste horrenbestean!

MIKEL AIZPURUA

Erredakzio taldeko kide ohia



**"Ni zorioneko egin
ninduen aldizkariak
hasiera hartan
elkarrizketak egitea
eskatu zidanean"**

Deba ez da plazak, kaleak, etxeak, eliza, hondartza, erreka eta alameda. Deba hutsa ez da Deba. Hori erakutsi dit *Berriketan*-ek; Deba debarrak dira.

Gu bezala, joan zen mendean sortu zen *Berriketan* eta hedabidearentzat izen egokia iruditzen zait, pertsonen arteko harreman lasaia, gustukoa eta sarria baita berriketa. Halaxe ezagutzen dira pertsonak eta halaxe ezagutarazten digu aldizkariak Deba, debarrak, alegia.

Ni zorioneko egin ninduen aldizkariak hasiera hartan elkarrizketak egitea eskatu zidanean. Herrian ikusi bai baina ezagutzen ez nituen pertsonak sakon ezagutzeko aukera eman zidan.

Geroztik, *Berriketan* aldizkariari esker, Deba, debarrak alegia, gehiago ezagutzen dut, gero eta gehiago diren irakurleek bezala.

ARANTZA IRIONDO
Komunikazio taldeko kidea



"Aukera ezin hobea eskaintzen digu herritarren eta herriaren berri izateko. Gainera, denontzako lekua dago"

Hasiera batean bazkide kuota ordaindu, aldizkaria jaso eta beste-lako harreman zuzenik ez nuen *Berriketan*-ekin. Baina 2016an Zuhatzak, Debako euskararen egoeraz eta etorkizunaz hausnarketa kolektiboa egiteko, gogoeta prozesua jarri zuen martxan eta bertan hainbat herritar elkartu ginen, gazteak, helduak, nagusiak. Hortik sortutako komunikazio taldeko kidea naiz harrezkero. Horrek aukera eman dit aldizkaria barrutik pixka bat ezagutzeko eta herritar gehiagorekin harremanetan egoteko. Gazteak herriko berriak euskaraz irakurtzeak ez ditu harritzen, baina "nagusiak" garenontzat lorpen handia da; eta hilabetekariak aukera ezin hobea eskaintzen digu herritarren eta herriaren berri izateko. Gainera denontzako lekua dago, baita adinean aurrera idaztera animatu garenontzat ere.

LANDER ARANBERRI
Zutabegilea



"Informazio-iturri izateaz gain, tribuna, eztabaida leku eta idazle zein kazetaritza eskola ere izan dugu"

Txikitatik jaso dugu etxean *Berriketan* aldizkaria. Hala, gurean, egongelako oinarritzko elementu bat gehiago izan da, telebista edo egunkariaren pare. "Beti" hor aurkitu izanak ez dirudi oso epikoa, eta, noiz edo noiz, ia denok gutxietsi dugu. Nik ere bai.

Komunikabide handien eta sare sozialen jabeak esku bakararekin zenbatu daitezkeen garaiotan, Deba herri aldizkari bat argitaratzeko gai da; eta horren balioa zenbatezina da. *Berriketan* informazio-iturri izateaz gain, tribuna, eztabaida leku eta idazle zein kazetaritza eskola ere izan dugu. Bere xumean, herritarren laguntzarekin, izan bazkide zein babesle, langile edo kolaboratzaile, hemen dirau proiektuak.

Oso epikoa izan da *Berriketan* hilabetekaria 25 urtera iritsi izana. 50 urtera iristea epopeia izango da?

ITZIAR ARANBERRI
Banaketa taldeko kidea



"Duela 25 urte pentsaezina zen Deban herriko berriak eta iritzi artikuluak euskaraz irakurtzeko aukera izatea"

Hilero sartzen da mezua taldearen whatsappera: *Bihar iritsiko da aldizkaria, ondo dator kizue?* Eta berehala erantzunak: *Bai... ni ere hor izango naiz... bai... Jone, Maite, Jose Luis...* denak aleetan pegatinak itsasteko prest. Lagun arteko lan polita da gurea. Aldamenean ditugu Zuhatzako lankideak jo eta su ordenagailuko teklak astintzen hurrengo alea prestatzen eta ezer esan gabe, baina gure komentarioei adi: azala deigarria ikusten da, hilabete honetakoak potoloagoa dirudi...

Duela 25 urte pentsaezina zen Deban herriko berriak eta herritarren iritzi artikuluak euskaraz irakurtzeko aukera izatea, baina askoren lanari esker, ametsa egi bihurtu da eta urte luzez horrela jarraitzea espero dugu. Banaketa taldeko kideok, gure txikitasunean, horren parte izaten jarraituko dugu.



Ohiko egitaraua dakar irailako azken asteburuan ospatuko den Euskal Jaiak

Irailaren 30ean izango da egun nagusia, baina bezperan hasiko da Euskal Jaiaren bueltan prestatutako egitaraua.

Bi hitzordu izango dira hilaren 29an, ostiralean. Batetik, Kanean Kantuz taldeak emanaldia egingo du kalez kale 19:30ean. Bestetik, ordu berean, baina Aldats pilotalekuan, esku pilota jaialdia izango da (doakoa izango da sarrera). Lehenik, etorkizuneko gazteen lehian, Zabaletak (Oiarpe) eta Egigurenek (Ilunpe) osatutako bikoteak Egurrola (Markina) eta Goibururen (Lapke) aurka neurtu beharko ditu indarrak. Ondoren, promesen mailako lau t'erdiko saioan, Aimar Egiguren (Ilunpe) eta Etxaniz (Bergara) ariko dira norgehiagokan.

Irailaren 30ean, goizetik gauera arteko programazioa izango da. Marmitako lehiaketak (10:00), Kalez Kale txistulariek (10:30), Zubietako joaldunek (11:30), Gure Kai eta musika eskolako dantzariak (12:00), trikitalariak (13:30), Zuhatza elkarteak antolatutako bazkari herrikoiak (15:00), buruhandiek (18:00), Joselontxo's txarangak (19:00) eta Nonbait taldearen erromeriak (23:30) osatuko dute egitaraua. Baserritarrez janzteko deia egin die Kultura-Euskara Batzordeak herritarrei.



Mintzalaguneari izena emateko epea zabalduko dute urrian

Mintzalagunen sarea zabalduz eta sendotuz doa Euskal Herrian, baita Deban bertan ere, urtez urte gehiago baitira elkarrekin praktikatu euskaraz aritzeko espazio eta guneak irabazten ari diren lagunak.

Zuhatzak kudeatzen du ekimena Deban, Euskaltzaileen Topaguneari elkarlanean, eta urrian zabalduko da 2023/2024 ikasturterako izen-ematea. Ohi bezala, aurten ere euskara praktikatu nahi duten bizpahiru lagunek (*bidelariak*) eta euskaraz hitz egiteko ohitura duen lagun batek (*bidelagunak*) osatuko dituzte mintzalagunen taldeak eta, astean behin, euskaraz hitz egiteko elkartuko dira talde txikietan.

Euskara praktikatu nahi dutenek eta praktika horretan laguntzeko prest daudenek izango dute, hortaz, izena emateko aukera. Euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea dira parte hartzeko baldintza bakarrak; herritar boluntarioei esker, egitasmoa doakoa da. Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan, koordinatzailea@zuhatza.com-era idatzita edo labur.eus/Zuhatza_Deba helbidean sartuta eman daiteke izena. Informazio gehiagorako: 943 19 13 83.

Antolatzaileek "euskara noiznahi eta nonahi praktikatzeko" gonbidapena egin diete euskaltzaileei.



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
 KALITATEA
 Empresa Registrada Nº 2/05/049
 NIVEL 2



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

Hamar urtez aisialdi euskalduna sustatzen

Aurrez udalekuetan aritutako hainbat gazte hezitzailek eta Zuhatza elkarteak elkarlanean sortu zuten Kolore Anitz Aisialdi Taldea duela hamar urte, betiere herrian haur eta gazteen artean euskarazko aisialdi eskaintza aberasteko helburuz. Ordutik lanean aritu da taldea, eta bide beretik jarraitzeko asmoa du. Iraileko laugarren asteburuan ospatu dute urtemuga, jolasaz, musikaz eta kolore morez zipriztindutako jai giroan.

Herriko hezitzaileen ilusioa eta lan egiteko gogoia. Hortik abiatuta jaio zen 2013an Kolore Anitz Aisialdi Taldea, Deban haur eta gazteen artean aisialdi euskalduna sustatzeko erronkarekin. Zuhatza Euskara Elkartearen baitan ekin zion bere ibilbideari eta bizi-bizirik jarraitzen du oraindik ere taldeak. Duela hamar urte gazte batzuen "ametsa" zena herrian errotuta dagoen proiektua da gaur egun.

Umentzako txangoak, jolasak, tailer hezitzaileak, Kolore Anitz Eguna, jaietako ekintza ezberdinak, Kolorez Blai udalekuak... jarduera ugari antolatu ditu taldeak 2013az geroztik. Eta ildo beretik segitzeko asmoa du, beti bezala, *Munduz mundu hegan egin, euskaraz biziz... Kolore Anitz* leloari jarraikita.

Irailaren 21ean eta 22an ospatu zen urtemuga. Taldearen ibilbidea azaltzen duen argazki erakusketa, kamiseten salmenta, eskulan tailerrak edo ginkana antzeko jolasak izan ziren aukeran. Taldekide ohien eta egungoen bazkariak, karropoteoak, Zatekeen erromeriaz eta Ñozz elektrotxarangaren emanaldiaz ere gozatu zuten asteburuan.



EMILI SUKIA • Zuhatza Kolore Anitz talde sortzaileko kidea

“Herriak aisialdi talde propioa behar zuela iruditu zitzaigun”



Taldea sortzen, begirale lanetan, koordinatzaile funtziotan... modu batean zein bestean, hasieratik ibili da Emili Sukia Kolore Anitzen. Iraganaz eta urteotako ibilbideaz galdezka joan zaio *Berriketan*.



Zuhatza Kolore Anitz taldeko kideak, hastapenetan (2013).

Nola gogoratzen duzu Kolore Anitzen sorrera?

Gazte batzuk garai hartan udalak antolatzen zituen Ikimilikiliklik udalekuetan elkartzen ginen. Elgoibarko Izarra elkarteko kide Naiara Martinek koordinatzen zituen udalekuak eta berak animatu gintuen lehen pausoa ematera. Guk ikusten genuen Deban bazela aisialdi talde bat sortzeko premia, baina ez genekien nola eta nondik hasi. Naiararen laguntzaz, gogo handiz eta Zuhatzaren konfiantzarekin jarri ginen martxan. Orduan ezagutu genuen Topaguneko Sonia Perez ere. Pausoz pauso egin beharreko guztia egin eta horrelaxe sortu zen gure lore morea.

Zer asmo edo helbururekin hasi zineten lanean?

Herriko jarduera asko kanpoko aisialdi taldeek edota enpresek antolatzen zituztela ikusten genuen. Alboko

herrietan begiratu bat eman eta ia guztiak aisialdi talde propioa zutela jakin genuen eta gure herriak ere hori behar zuela iruditu zitzaigun. Gure herriari eta gure haurrei aukera hori emateko beharra ikusi genuen.

Hasieran ezarritako oinarrirei edota helburuei eutsi al die Kolore Anitzek hamar urte hauetan?

Baietz esango nuke. Helburua beti izan da Debako haurrei euskarazko aisialdi eskaintza egitea eta horri eutsi diogula uste dut. Ekintzak antolatu eta ondo pasatzeko aukerak ematea izan da beste helburuetako bat. Haurrek eta gurasoek oso harrera ona egin izan digute beti eta horrek urte hauetan gogoz jarraitzeko indarra eman digu.

Nolako funtzionamendua izan du taldeak?

Urteotan jende asko pasa da taldetik eta gorabeherak izan dira. Batzuetan oso ondo ibili gara, bilerak egin dira, koordinazioa bikaina izan da eta ekintzak antolatzeko gogoia egon da. Beste urte batzuetan, berriz, tiraka ibili beharra ere nabaritu da, gogo falta edo beste lehenetsun batzuk zeudelako tartean. Gazte izatea, ikasketa garaiak, lanean hasteko adina... batzuetan zaila da dena uztartzea.

Bidean izan dituzuen zailtasunik handienak zeintzuk izan dira?

Zailtasunik handienak udalarekin izan ditugula esango nuke, baldintza administratiboak ez betetzeagatik edo eskatu izan dizkiguten hainbat kontu direla eta.

Eta lorpenik ederrenak?

200dik gora haur izan genituen udalekuetan eta gurekin ongi pasatzeko hainbeste jendek izena ematea zoragarria zen guretzat. Bestalde, hamar urtez jo eta ke aritzea ere lorpen izugarria da nire ustez. Bidean zailtasunak eta trabak izanda ere, taldeak aurrera egin du eta hori oso garrantzitsua da.

“Herrian dugun altxor txiki hau bizirik mantentzeko baliabideak jarri behar dira”



Kolore Anitz Eguneko kalejira jendetsua (2014).

Arlo pertsonalean, zer eman dizu zuri Kolore Anitzek?

Gauza asko. Batetik, jende zoragarria ezagutzeko aukera. Aisialdi taldean ezagutu ditut gerora lagun min bihurtu diren kide asko, eta hori da niretzat altxorrik handiena. Bestetik, asko ikasi dut. Kolore Anitz sortu zenetik, udalekuak antolatzeak zein aisialdiak barrutik dakarren lanketa guztia ikasteko aukera izan dut eta begirale zein koordinatzaile moduan hazteko aukera ere eman dit.

Nolako izan da herritarrek taldearen ekimenei emandako erantzuna? Harrera ona izan duzuela aipatu duzu lehen, ezta?

Oso ona izan da beti, oso pozik gaude. Egia da ekintza batzuetan jende gehiagok edo gutxiagok ematen duela izena, baina gaur egun haurrek gauza asko izaten dituzte, musika eskola, kirola, udaleku ezberdinak... Gehienetan arrakasta izaten dute ekintzek eta zentzu horretan ez dugu inolako kexarik, esker oneko hitzak besterik ez.

Hamar urte pasa dira bidea egiten hasi zenetik. Nola ikusten duzu egun aisialdi taldea?

Orain momentuan, zoragarri. Talde polita da, lan egiteko ilusioz eta gogoz betea. Taldean dabilzanetako asko gure ibilbidearen hasieran gurekin izan genituen lehenbiziko haurrak dira. Garai hartan gure jarraitzaileak ziren, ekintza guztietan izena eman eta asko disfrutatzen



Kolorez Blai udalekuak (2019).

“Haurrek eta gurasoek oso harrera ona egin izan digute beti eta horrek urte hauetan gogoz jarraitzeko indarra eman digu”



Txuri Urdin izotz jauregira egindako irteera (2020).

zuten, eta gaur egun beraiek dira begiraleak. Talde zoragarria da eta bertan halako jendea izatea probestu egin behar da.

Eta non eta nola irudikatzen duzu Kolore Anitz hemendik hamar urtera?

Nigatik izango balitz, beste urteurren bat ospatzen, haurrak gure ekintzetan parte hartzen eta herria haien irriekin koloreztatzen. Hala ere, zintzo jokatu behar badut, nire ilusioa baino zerbait gehiago beharko dela aitortu behar dut.

Zer zentzutan? Zer beharko da zehazki?

Lana egiteko prest dagoen jendea badago, modu boluntarioan aritzen dena askotan, baina ilusio hori bizirik mantentzeko laguntzarik ez baldin badago eta bidean zailtasunak jartzen baldin badira, lorea zimeldu egingo zaigu. Gainontzeko loreek bizirauteko ura behar duten bezala, gureak babes behar du. Herrian dugun altxor txiki hau bizirik mantentzeko baliabideak jarri behar dira, gauzak erraztu eta bidea egiten lagundu. Kanpotik datorren erraldoi handi batek zapaltzen baldin badu, nekez jarraituko du bizirik gure lore moreak. Ez dut esan nahi erraldoiak gaiztoak direnik, baina agian hobe litzateke haiek beren herrian bakean uztea, gure loreak handitzeko aukera gehiago izan ditzan.

NORA SALEGUI • Zuhatza Kolore Anitzeko kidea

“Ateak zabalik daude parte hartu nahi duen jende berriarentzat”



Dozena bat kidek osatzen dute gaur egun aisialdi taldea eta tartean dago, 2020ko abenduaz geroztik, Nora Salegui. Taldearen dinamikaz eta aurrera begirako erronkez hitz egin du ondoko solasaldian.

Zerk animatu zintuen Kolore Anitzen izena ematera?

Txikitari udalekuetan parte hartzen nuen eta oso oroitzapen politak ditut; begiraleak erreferente gisa ikusten nituen eta horrek begirale izatera bultzatu ninduen. 2020an sartu nintzen taldean eta oso gustura nabil.

Zenbat kide zarete orain taldean eta nolako dinamika duzue gaur egun? Edonork parte har dezake?

Hamabi lagun aritzen gara Debako haurrei aisialdiaz gozatzeko aukera eskaini ahal izateko borondatez lanean. Herrian egiten diren ekintzetan begirale gisa aritzeko ez da titulaziorik behar, baina haurrekin aritzeko gogoia eta konpromisoa beharrezkotzat jotzen ditu taldeak. Aukera hau aprobetxatu nahiko nuke herriko gazteei Kolore Anitz-era batzeko gonbidapena egiteko. Ez dugu profil zehatzeko jendea bilatzen, adina edo ikasketak ez dira garrantzitsuak gogotsu etortzen baldin bazarete, eta ateak zabalik daude parte hartu nahi duen jende berriarentzat. Orokorrean, hiruzpalau bilera egiten ditugu ekintza bakoitza prestatzeko eta, horrez gain, herriko eragileekin biltzen gara bestelako barne mailako kontuak edo gestioak egin ahal izateko. Taldea une oro lotuta eta aktibo mantentzen saiatzen gara.

Zein adin tarterri begirako eskaintza lantzen duzue?

Ekintzak, oro har, Haur Hezkuntzako azken mailako haurrentzat eta Lehen Hezkuntzako haur guztientzat (LH1 - LH6) prestatzen ditugu. Hala ere, ekimenaren arabera adin-tartea zabaltzen dugu eta, horrela, Haur Hezkuntzako haur guztiek parte har dezakete.

Zeintzuk izan dira aurten egin dituzuen ekintza nagusiak?

Bizkaia Park Abentura-ra egindako txangoarekin abiatu genuen urtea eta otsailean inauteriak ospatu genituen,

pista-jolasa eta txoko ezberdinak antolatuz. Udaberriko oporraldian, berriz, haurrek tailer ezberdinetan parte hartu eta gozatzeko aukera izan zuten. Maiatzean, Debarren Egunarekin batera, erraldoiak eta buruhandiak sortu genituen. Eta, azkenik, taldearen 10. urteurrena ospatzeko egun berezi bat antolatu dugu, pasa berri den irailaren 23an.

Eta aurrera begira zeintzuk dira aisialdi taldearen erronka, helburu, helmuga nagusiak?

Haurrei aisialdi hezitzailea eta euskaltzalea eskaintzea eta haurren hizkuntza ohituretan eragitea da taldearen helburu nagusia eta, hori kontuan hartuta, aisialdiko jardueretan euskaraz mintzatzeko baliabideak eskaintzen jarraituko dugu. Helburu horiek lortzeko, jolasa da gure oinarritzko bidea. Etorkizunera begira, ilusioz ekingo diegu urtez urte egiten ditugun jarduerari, eta, gainera, egun osoko irteera gehiago antolatu nahiko genituzke, baita gaua igarotzeko irteera bereziak ere. Era berean, aurrera begira, Kolorez Blai udalekuak itzultzea da gure asmoetako bat, eta horretarako lanean jarraituko dugu.

“Aisialdiko jardueretan euskaraz mintzatzeko baliabideak eskaintzen jarraituko dugu”

Nola ikusten duzue herriko euskarazko aisialdi eskaintza gaur egun? Zein ekarpen egin dezake Zuhatza Kolore Anitzek esparru horretan?

Herrian aisialdiaren eskaintza zabala dela esango nuke, baina Zuhatza elkartearen helburuetako batzuk euskara zaindu, bultzatu, erabili eta sustatzea diren heinean, Kolore Anitzen ere ildo horretatik jarraituko dugu lanean. Haurren euskararen erabilera bultzatzea eta aisialdiaz gozatzeko da gure helburua, euskaraz aisialdian eta kalean lekua baduela uste dugulako.

Arrakastatsua izan da Marokora bidaltzeko material bilketa

Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, Deban ere Marokoko lurrikaran kaltetutakoei laguntzeko material bilketa solidarioa egin dute. Pakea-Deba elkarteak kideek sustatu dute kanpaina eta, nabarmendu dutenez, "oso arrakastatsua" izan da. Emandako datuen arabera, materialez betetako bi auto eta furgoneta handi bat bidali dituzte Debatik. Gainera, bidaia aprobeztatuz, Erreterian erdi hutsik geratu zen beste furgoneta bat ere bete dute.

Bilketa koordinatzeaz arduratu direnak oso esker oneko azaldu dira. "Ez dago hitz nahikorik hau guztia deskribatzeko. Harrituta geratu gara jendearen erantzunarekin, eta erakutsi duten jarrera txapela kentzeko modukoa izan da. Zuen alea jarri eta lagundu duzuen guztioi, eskerrik asko, benebenetan", adierazi du Mohamed Akouas elkarteak kideak.

Boluntario bezala materiala biltzen laguntzen aritu direnen edo gauzak dohaintzan eman

dituztenen eskuzabaltasuna eskertu dute. "Amaia Zalduegi farmaziak, Amaiak Batek, Lamariano eta Masillo dendeak, parrokiako Kooperazio Taldeak eta Caritas, Mugarik Gabe eta Chernobil elkarteek emandako laguntza eskertu nahiko genuke bereziki".

Tardunat aldera

Materiala Zumarragako bilketa puntura bideratu dute lehendabizi eta, materiala handik Marokora helaraziko duen garraioa ziurtatu ondoren, Tardunat inguruan sakabanatuta dauden herrixkarik kaltetuenetan banatzea da Pakea-Deba elkarteak kideen helburua. "Zorionez, gu bizi ginen eremuan ez da kalterik egon, baina lurrikarak sekulako txikizioa eragin du hegoalderago. Tardunatinguruan mendi artean dauden herrixka askotara ezin dute laguntzarik bidali, eta herritar horiei guztiei laguntza helaraztea da gure nahia".

Guztia bideratzeko, baina, garraioa aurkitzea eta materiala



behin Marokora iristean hura banatzeaz arduratuko den laguntza koordinatzea ezinbestekoa izan dela azpimarratu du Akouas-ek. "Kamioi gidari batekin jarri ginen harremanetan, eta hark Algecirasera eta handik itsasontzian Tangerrera eramango du materiala. Deban bizi den gure lagun bat, gainera, Marokon oporretan zela ezustean harrapatu zuen ezbeharrak eta, materiala behin Marokora iristean, hura arduratuko da guztia koordinatzeaz eta materiala Tangerretik herrixka kaltetuenetara helarazteaz".



22 bikote ariko dira urriaren 8an abiatuko den XI. Nesken Binakako Pala Txapelketan

Urriaren 8an hasi eta abenduaren 16ra bitartean jokatu den XI. Nesken Binakako Pala Txapelketaren prestaketa lanen azken txanpan sartuta, Iruleak Emakume Pilotariak taldeak kideek jakinarazi dute aurten 22 bikotek eman dutela izena.

Ostegun arratsaldeetan eta igande goizetan izango dituzte

partidak, eta lehen fasea ligaxka eran jokatu dela aurreratu dute. Lehenengo mailan ariko diren hamahiru bikoteak hiru multzotan banatuta lehiatuko dira eta bigarren mailan ibiliko diren bederatzik bikoteak, aldiz, bi taldetan banatu dituzte. Gaineratu dutenez, lehen fase horren ostean etorriko dira finalerdiak eta finala.

Iraila/Urria

IRA. 29 (OSTIRALA)

TAILERRA

18:00 'Fermentazio, bizioa!' tailerra, Lurlab-en eskutik. Itziariko Apaiz-Etxeko sotoa.

'FLYSCH AT NIGHT' EKOSAFARI GAUTARRA

21:30 Debanaturaren eskutik. Santiago hondartzatik.

IRA. 29-30

EUSKAL JAIA 2023

Bi eguneko egitaraua. *Xehetasun guztiak ale honetako 22. orrialdean.*



IRA. 30 (LARUNBATA)

SOLASALDIA

11:30 'Ta argiya iñ zan'. Itziariko Burugorri.

URR. 2 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

URR. 5 (OSTEGUNA)

IRTEERA

09:00 Itziariko jubilatuen irteera Errioxara. Kanala pareko autobus geltokitik.

URR. 16 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

URR. 18 (ASTEAZKENA)

DKUMENTAL EMANALDIA

18:00 'Suharra'. Ondoren, solasaldia egingo da egileekin. Itziariko Burugorri.

URR. 22 (IGANDEA)

ZINEMA

16:30 'Oltxiak', Zubi Guraso Elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.

IPIIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

URR. 25 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Ilunpeko zelataria' (Alberto Ladron). Ostolaza Udal Liburutegia.

IKASTAROAK

Urriko eskaintza:

IKASTAROAK KZgunean

Aurrez aurrekoak, urrunekoak eta bideokonferentzia bidezkoak. Ordutegia: urriaren 1etik 15era, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara.

PUNTU TAILERRA

Arbil Jubilatu Elkarteak antolatuta. Doakoa izango da. Ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 16:00etatik 20:00etara. Informazioa: 631 90 99 60.

HELDUENTZAKO MARGO IKASTAROA

Haitz-Haundi Elkarte Artistikoaren ekimenez egingo da, Kultur Elkartean, urriaren 3tik maiatzaren 30era (astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara). Izen-ematea: urriaren 3an, Kultur Elkarteko azken solairuan.

LEHIAKETAK

XVIII. Tene Mujika beka Zabalik da Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako lehiaketan parte hartzeko epea. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 11 da. Oinarriak: deba.eus atarian.

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

Irailak 29 (ostirala)

20:30 'Hondamendia' (Artedrama). Sarrera: 10 €. Ermua Antzokia.



EIBAR

SAGARDO EGUNA

Urriak 7 (larunbata)

Egun osoko jaia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Untzaga Plaza.

ELGOIBAR

'EUSKARA ALA EZKARA LITERATURAN?'

Urriak 7 (larunbata)

09:30-14:30 Hainbat idazlek parte hartuko dute Elgoibarko Izarrak antolatutako jardunaldian. IMH Campus ikastetxea.

SORALUZE

'MARRASKILO TOUR 2023' MENDI IBILALDIA

Urriak 7 (larunbata)

Irteerak, Plaza Berritik: 06:00etan (35 kilometroko ibilbidea) eta 08:00etan (19 kilometroko ibilbidea).



ZAINZAKO BOTIKA

Eguz, 09:00etatik 22:00etara

BURGEO ZUAZO Urriak 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22.

ZALDUEGI Urriak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGEO ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGEO ZUAZO
Urriak 14 eta 21

ZALDUEGI

Irailak 30 / urriak 7 eta 28

Jarraitu gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkartea



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan urriaren 19a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Labide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



Gestilan
asesores aholkulariak

DEBA | Bulego berria
Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

 asesoriagestilan
  gestilan.es
  gestilan@gestilan.es



Uzuri
optika audio



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12




Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.



EBAZPENA
Ezker-eskuin: 3 Iruleak | 6 Xahu | 7 Zabala | 8 Riesgo | 10 Pralleaitz | 11 Surla
Goitik behera: 1 Muxiarre | 2 Boccia | 4 Goaz | 5 Lapari | 9 Gaztelu | 12 Arbil

EZKER-ESKUIN

- 3 Emakume Pilotariak.
- 6 Josu Salegiren jazz taldearen izena.
- 7 Arteondo harri-jasotzaile itziartarraren abizena.
- 8 Realeko atezain ohia.
- 10 Debako haitzuloa.
- 11 Bitor Garitaonandiak egiten duen kirola.

GOITIK BEHERA

- 1 Itziarko kalea.
- 2 Amagoia Arrietak egiten duen kirola.
- 4 Antzerki Taldea.
- 5 Hondartza izena.
- 9 Lasturko mendia.
- 12 Argazkiko mendi gaina.



Informatika
 Tresneria
 informatikoa

Elektronika
 Osagai
 elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
 Maxpe Kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
 Faxa: 943 19 18 36
 Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
 INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com

ieraenea
 sodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA
 Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

LAMARIANO
 Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
 943 19 12 52

Arteondo
 Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

SUKIA
 Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
 Tel.: 943 192 386
 Deba (Gipuzkoa)

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATEIXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

INGELES
AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net



janire & maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa



Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



50 URTE

BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



A. Esnaola P. Echeverria

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@pyadent



ZUREKIN

AUZOAN

PARKEAN

Mintza
POZA
PRAKTIKATU



nonahi

ARRATSALDOZ



noiznahi

GOIZETAN


Elkarrekin
MINTZAPOZA
praktikatzeko
nahi beste plan
aukeran!

IZEN-EMATEA: Urrian zehar
labur.eus/Zuhatza_Deba - 943 191 383

 mintzalaguna.eus

Antolatzaileak


euskara elkarrean...deba

 euskaltzaileen
topagunea

Babestleak

 Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURAREN ERKUNTZA
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


DEBAKO UDALA


ETORKIZUNA GRAIN